

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO DITUEN SOZIETATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, -2014.

Joan den apirilaren 21ean Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen Euskal Irrati Telebista (Eitb) Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen sozietateen 2014ko ekitaldiaren ekonomia-finantzako jardueraren fiskalizazio txostena mamitu du.

Txostenak ondorioztatu du Enteak eta mendeko sozietateek **zuzentasunez bete dutela** 2014ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen **lege-arautegia**; salbuespen da zuzendaritza postu funtzional batetarako egindako pertsona baten izendapena, “profesionaltasun” kontzeptua baliatuta, pertsona honek aldeztatik Eitb taldearekin kontratu-loturarik batere ez zuelarik eta goi kargudun modura ere ageri ez delarik.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du inongo salbuespenik azpimarratu gabe.